

IL AZALPEN PROBA • *Connemara gure bihotzetan*

Kodea* Taldea

*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Txema konturatu zen, beraz, bidegurutzean zegoela, eta boy-scoutei belarrondoko bana ematea baino, oihuka hastea baino, askoz ere gogo handiagoak sortu zitzaizkion herrira bueltatzeko, eta kanposantuko G12 kaleko hilotzaren aurrean birrikak ondo bete eta puta nazkagarriaaaaa! botatzeko garrasi batean. Ondoren lasaitu, Eider barreka erakusten zuen argazkiari begiratu, “Goian bego. Eider Bengoa Erzilla, 1965eko otsailak 8 - 1994ko apirilak 21”, eta sentitzen zuen guztia esatea, hala nola ez zuela eskubiderik berari horrelakorik egiteko, eta ea nork maite zuen gehien mundu honetan, eta gezurretan ibiltzea baino nahiago zuela dena bertan behera utzi izan balute, eta ea ez zen ulerkorra izan udalekuko kontua aitortu zionean, bai ezta? Ba, zergatik ez zenidan hau ere esan? Nik barkatuko nizun Rocío horrekin izandako afera. Baina ez zenuen konfiantzarik, ezta? Eta horrelakoak.

Boy-scouten txilio eta neurriz kanpoko algarek atera zuten bere pentsamenduetatik. Zuzen begiratzeko zien, euren poza gorrotatuz edo. Harreralekuko neskarekin ari zen hizketan scoutetako bat, hain zuzen denen burua zirudiena, bai itxuraz eta bai imintzio aldetik ere. Neskak pozik ematen zuen, batek daki zein txikieriaz berbetan.

IL AZALPEN PROBA • <i>Connemara gure bihotzetan</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Handik gutxira konpresak erosita genituen eta prest gaunden Lahinchera bueltatzeko. Baina (eta hemen hasten da kontatzeko zailena, hain zuzen ere zoragarriena delako) Ralphek ez zuen Lahincheko bidea hartu, Galwaykoa baino. Izugarri beldurtu nintzen; erabat paralizatuta nengoen eta oihuka hasiko nintzatekeen Ralphek furgoneta bide ertzean geratu eta hain ezti berba egin ez balit. Batez ere begirada zintzoak lasaitu ninduen. Begiekin adierazten zidan ez zuela intentzio txarrik, hain zuten espresio barea. Eta asko lasaitu ninduen beste zerbait ere egin zuten, ordura arte ez Rociok, ez Jabik, ezta Txemak berak ere hain era benetakoan lortu ez zuten zerbait: nire izena aipatu zuten behin eta berriro, bost hizki horiek gozatuz bezala, Eider hitzaren txoko guztiak deskubrituz bezala, eta Eider, Eider esaten zuten bitartean egia borborka jaurtitzen zuten bi begi horiekin egiten zidan so.

Eta bide bazter horretan, azkenik, irribarre txikitxo bat eskaini zidan eta, eskuak bolanteari lotuta zituela, “Connemara joan nahi duzu, Eider?”, galdetu zidan. Ez dakit galdera horretatik zein zatik irauli zizkidan tripak hain modu zoragarrian: Connemara aipatzeak eta bidaiari lehenengoz lur zati hori nire eskuetan sumatzeak, edo Eider izena maitasunez bildu zuten ahots eta begi haiek. Baina berdin dio. Baietz esan nion.